

Bidebieta

Larraitz Garmendia (finoa.: 943-391267)

agurtzane Mujika hainbeste urtetan lanean aritu den Herri Ametsa ikastolako andereñoa jubilatuta egin da. Pasa den astean hirurogeita bost urte bete zituen egunean, gauza guztiak hartu eta adio esan zion ikastolari. Bidebieta, Herrera, Altza eta Intxaurren auzoetako ikasle ugari izan ditu Agurtzanek.


Jai hunkigarria

Agurtzane Mujikaren erretiroa dela eta, jaialdi txiki bat prestatu zitzaion ikastolan. Txan magoak bere azken antzezlanak aurkeztu zuen eta Herri Ametsa ikastolako dantzariak agurra dantzatu zioten. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zenbait ikasle ere bertsoak abestu eta lore sorta eta idatzi eder bat oparitu zizkieten.

Urte zailak

Idatzi horretan ikasleek gogora ekarri nahi izan zuten

Agurtzane Mujika andereñoaren agurra



Ondo merezitako atsedena hartuko du Mujikak hemendik aurrera. Erretiratzeko unean ikasleek merezitako omenaldia eskaini zioten.

Agurtzane Mujikak eta bere garaiko irakasleek jasan

behar izan zituzten trabak haien lana egiteko. Zenbaitetan gorriak ikusi zituzten lana aurrera eramateko. Horrela dio idatzi horren pasarte batek: *"Hirurogeita seigarrenean, Franco boterean zegoela euskal kulturaren gau iluna zen, erraz daiteke gogorra. Legea aurka, liburuak faltan, nahi adina eragozpen, txapel okerren bisitak ere noiz edo noiz bazituzten. Gaur honetan ari garen guztiok ez dakigu hori zer zen; aitzindari horientzat baina, traba bihurtzen ezten".*

Festa hunkigarria eta ahaztezina izan zen askorentzat, eta Agurtzanerentzat bereziki.

Zubietta

Udal Batzordea eta Elorza elkartu dira

Mikel Bengoetxea

hiru hilabete behar izan dituzte PP eta PSE-EEk gobernu akordioa lortzeko. Lehenbiziko aldiz, alderdi abertzaleak gobernu kanpo geratu dira eta fase berri batean sartu gara. Akordio edo hitzarmen honek eragina izan lezakeenez Zubietan, bertako Udal Batzordeko ordezkariak Odon Elorzarekin bildu berri da zubietarron kezak eta nahiak plazaratzeko asmoz.

Zubietarrek, beren batzarren egitekoa eta funtzionamendua azaldu zizkieten Elorzari eta etorkizunaz galde egin zioten. Jakina da Zubietan hainbat proiektu daudela egiteko: Plan Partziala aurrera eramane eta frontoi berria eraiki beharra dago, bide sarea hobetu behar da eta premiazkoa da saneamendu sarea egitea. Gainera hipodromoaren zelaia txukuntzea eskatu zitzaion alkateari.

Beste egitasmo interesgarri bat ere abian jarri zen Zubietan eta horren berri izan zuen Elorzak: agiri zaharren bilketa eta Zubietaren historia jasoko duen liburua. Eskaerak egin dira, datozen hilabeteetan ikusiko da gai hauek aurrera eramateko urratsak ematen diren ala ez.

TABERNA - JATETXEA

OLIVOS

Erregezainen kalea 4 • Tfnoa.: (943) 214989

PARMA hotela

Itsaso aurrean.
Bainua, berogailua, telebista
eta telefona gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TFNOA: (943) 42 80 19